

Eusko Jaurlaritzak grebaren eragina ezkutatu nahi du, datuak manipulatu

Datuak jasotzerakoan ikasturte osoan zehar ikastetxeetatik pasa diren ordezkari langile guztiak izan ditu kontuan momentu honetan bertan lanean aritu ez arren, haurreskoletako datuak ez ditu kontuan izan eta datuak jaso ez dituen ikastetxeen %10ak grebarik egin izan ez balute moduan kontatu ditu.

LAB, ELA eta steilas sindikatuak oso joko zikina iruditzen zaie Eusko Jaurlaritzak grebaren eragina ezkutatzearren datuen inguruan egiten ari den manipulazioa.

Sindikatuak ikastetxe ugarietako zuzendaritzaren bidez jakin dugu gobernuak grebaren jarraipen datuak jasotzeko erabili duen aplikazioak ikasturtea hasi zenetik ikastetxeetatik pasa diren langile guztiak hartu dituela kontuan. Hau da, bajaran, eszedentzian edo norbere eginkizunetan dauden langileak kontatzeaz gain irailetik ordezkariak ezberdinak egin dituzten langile guztiak izan ditu kontuan, nahiz eta hauetarik gehienak egun ikastetxean lanean ez aritu edo kasu batzuetan duela 7 hilabete lan egin zuten. Honek ikastetxe gehienetan jaurlaritzaren beraren datuen arabera grebaren eragina 10 edo 15 puntu jaitsi arazi du.

Gobernuak datuak ematerakoan ez ditu kontuan izan Haurreskolak Partzuergoaren greba jarraipen datuak, %85etik gorakoak sindikatuon datu bilketaren arabera.

Gainera, ez dakigu datu horietan irakasleak soilik kontuan izan dituen, grebara irakasleek gain Heziketa Bereziko langileak, sukaldariak eta garbitzaileak ere deituak zeudenean.

Azkenik, jaurlaritzak ikastetxeen %10en datuak jasotzeke utzi ditu, baina grebaren jarraipen datuak ematerakoan, ikastetxe horietan guztietan inork grebarik egin izan ez balu moduan kontatu du.

LAB, ELA eta steilas sindikatuak plazaratu ditugun datuak eta deialdiak eta manifestazioek izan duten arrakasta berresten ditugu eta lotsagarria iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzak gaur unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan eta haurreskoletan burutu dugu grebaren jarraipen zabala ikusita, grebaren eragina ezkuta arazteko datuak manipulatu aritzea, indarrak plazaraturiko egoera larriari eta aldarrikapenei bide ematera bideratu beharrean.

Euskal Herrian, 2017ko martxoaren 22an

